

EBAZPENA, Hezkuntza Politiketako sailburuordearena, “Jesús Guridi” (Vitoria-Gasteiz), “Francisco Escudero” (Donostia-San Sebastián) eta “Juan Crisóstomo de Arriaga” (Bilbao), Musika Kontserbatorio Profesionalen 2025-2026 ikasturterako eskola-egutegia egiteko osagarritzko arautegia ematen duena.

“Jesús Guridi” (Vitoria-Gasteiz), “Francisco Escudero” (Donostia-San Sebastián) eta “Juan Crisóstomo de Arriaga” (Bilbao), Musika Kontserbatorio Profesionalen 2025-2026 ikasturterako eskola-egutegia ondoko honi lotuko zaio:

1.- 2025eko irailaren 1ean hasiko dira ikasturte berriaren antolaketarekin zerikusia duten jarduerak eta zereginak.

2.- Eskola-jarduerak ezingo dira 2025eko irailaren 5a baino lehen hasi, eta, beranduenez, 2026ko ekainaren 19an amaituko dira.

Azken eskola-eguna eta ekainaren 30era bitarteko epea ikasturteko azken ez-ohiko azterketak, ikasturtea berrikusi eta ebaluatzeko lanak, programazioak, Urteko Txostenaren prestakuntza eta dagozkion administrazio-egintza guztiak egiteko erabiliko da.

Uztailean zehar eta klaseak ematen ez diren ikasturteko beste egun edo aldietan, (abuztuan salbu), zuzendaritza-taldeko kide bat, gutxienez, beti izango da kontserbatorioan edo berehala ikastetxean izateko moduan.

3.- Ikasturte barruan ikasleekin iharduneko egun kopurua, gutxienez, 175ekoa izango da, hauetako 160, gutxienez, eskola-egunak izango direlarik. 2025-2026 ikasturtearen aurkezpena egiteko erabiliko den eguna eskola-eguntzat hartuko daiteke. Ikasle guztiei ziklo bakoitzari arau bidez dagozkion ordu guztiak ematea bermatu beharko da.

Aipaturiko 160 eskola-egunak ezin izango dira erabili azterketa-aldiak ezartzeko, sarbide-probak egiteko edo gaingitu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleentzako azterketak egiteko. Era berean, klaseak ere ezingo dira eten ebaluazio-batzarrak edo klaustroak egiteko.

Hala eta guztiz ere, konbalidatzeko ikasgaiak dauzkaten ikasleen ebaluaketa denbora nahikoarekin egingo da haien notak matrikulatuta dauden zentroko ohiko ebaluaketa saiora heltzeko.

Ekainean ebaluaketa gaingitu ez duten ikasleek bigarren deialdia izango dute. Proba hau ekainean egingo da, kontserbatorioetako eskola-egutegietan aurreikusitako 160 eskola-egunak amaitu ondoren.

4.- Ezinbesteko arrazoiengatik eskola-egunen kopurua gutxitzen bada, egutegia berregokitu egingo da aurreikusitako 160 egunetara iristeko, kasu bakoitzean langileen lan-eskubideak errespetatuz.

Nahiz eta egunen batean ikasle batzuk edo ikasle guztiak klasera ez joan, kontserbatorioak klaseak ofizialki programaturiko ordutegiaren arabera eskaintzen jarraitu behar izango du.

Egutegia berregokitu behar denean hasieran egiteko erabili zen prozedura berbera jarraituko da. Eskola Kontseiluak ez badu berregokitze proposamenik egiten, Hezkuntzako Ikuskaritzak egin dezan eskatuko dio. Erantzunik ezean, Hezkuntzako Ikuskaritzak egutegia berregokitu eta kontserbatorioari jakinaraziko dio.



5.- Eskola-egutegia egiteko, dagokion urteko Autonomia Erkidegoko lanegunetako jaiegunen egutegi ofizialaren arabera jaiegun izaera dutenak izango dira jaiegunak, baita herri edo dagokien lurraldeko zaindarien jaiegunak ere. Edonola ere, ezin izango da jaiegun horietakoren bat eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

Kontserbatorioek, nahi izanez gero, jaieguntzat hartu ahal izango dute haien zaindariaren eguna, dagokion egunean zein aukeratzen duten ordezkaturako beste egun batean ospatuz. Edonola ere ezin izango da jaiegun hori eskola-egun edo eskolak ematen diren egun bezala hartu.

Bestalde, noizbehinka edozein jarduera ez ohikoa programatu ahal izango da asteko zazpi egunetan zehar, igandeak edo oporretako beste aldi batzuk barne. Jaiegun horiek ezin izango da eskola-egunen zenbaketaren barruan zenbatu, ezta eskolak benetan ematen diren egunen zenbaketaren barruan ere.

6.- Gabonetako oporraldia 2025eko abenduaren 24tik 2026ko urtarrilaren 6ra bitartekoa izango da gutxienez, biak barne.

Aste Santuko oporraldia 2026ko apirilaren 2tik 6ra bitartekoak izango da gutxienez, biak barne.

7.- Eskola egutegiaren proposamena tramitatzeko 2008ko martxoaren 10ean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuak emandako Aginduko 9. atalean ezarritakoari jarraituko zaio, (2008ko apirilaren 25eko EHAA). Bertan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitateaz kanpoko ikastetxeetan —fondo publikoekin ordaindutakoetan— ikasturte bakoitzeko eskola-egutegia egiteko oinarrizko arautegia zehazten duena.

Egutegi proposamena ikastetxeko Eskola Kontseiluak egingo du, baina ikastetxeren batean organo hori osatu gabe badago, irakasleen klaustroak egingo du egutegi proposamena.

2025eko maiatzaren 30a baino lehen, ikastetxeetako zuzendariak Hezkuntza Sailak horretarako espresuki diseinaturiko aplikazio informatikoa erabiliz hurrengo ikasturteko eskola-egutegiaren proposamena egingo dute, beti ere Hezkuntzako Ikuskaritzak jakinaraziko dizkien argibideak jarraituz. Ikastetxeek aplikazio horretan ikastetxeko Eskola Kontseiluak eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen data adieraziko dute. Eskola Kontseilu horrek eskola-egutegiaren proposamena onetsi zuen bilkurako akta ikastetxean bertan artxibatuko da eta Hezkuntza Ikuskaritzaren eskura izango da.

8.- Erabaki honek ezartzen duena nolabait aldatzeko, ontzat eman egin beharko du hezkuntza-ordezkaritzak. Kontserbatorioaren Eskola Kontseiluak aurrez eta espresuki azalpen-eskabide baten bidez baiezkotzeko eskatuko dio Hezkuntza Ikuskaritzari.

9.- Kontserbatorioen batek, finkaturako epealdiaren barruan beren eskola-egutegiaren proposamena bidaltzen ez badu, edo bidalitakoa onartzen ez bada, dagokion Hezkuntza Lurralde Ordezkaririk egindakoa onartu behar izango du.

Vitoria-Gasteiz, sinadura elektronikoaren datan.

Lucía Torrealday Berrueco
HEZKUNTZA POLITIKETAKO SAILBURUORDEA